

1. eranskina. Proposamen didaktikoa: Euskal Herriko ingurumen-gida kolaboratiboa Wikimedia erabiliz.

1.1 Deskribapena

Arloa	Biologia eta Geologia Euskara eta Literatura Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiak
Maila	DBHko 1. eta 4. mailak
Zeregina	Euskal Herriko naturaguneen eta biodibertsitatearen gida ilustratu bat osatzea modu kolaboratiboan, Wikilipediak eskaintzen dituen baliabideak erabiliz.
Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> • Ordenagailu bana Interneteko sarbidearekin. DBH 1eko kasuan talde bakoitzeko ordenagailu batekin egin daiteke. • Wikimediako kontua. Artikuluak editatzeko ez da ezinbestekoa baina jarraipena egiteko lagungarria izan daiteke. Argazkiak Wikimedia Commonsera igotzeko ezinbestekoa. • Mugikorra/Argazki kamera. DBH 1eko ikasleek argazkiak ateratzeko.

EDUKIAK (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailetik)	
1. MULTZOA. Eduki komunak. A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira: <ul style="list-style-type: none"> • Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea. • Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea. • Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziaztea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab.). • Taldean ikasteko lanetan laguntzeko eta elkarlanean aritzea. 	
Biologia eta Geologia	
1. MULTZOA. Eduki komunak. B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak	

- Lan zientifikoaren berezko estrategiak, lagungarriak direnak alderdi hauekin lotutako jarrerak garatzeko: jakin-mina, interesa, zehaztasuna eta zorrotasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, ahalegina eta autonomia norberaren lanean, eta jarrera aktiboa eta arduratsua lanean.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako edukiak: Aniztasuna Lur planetan

4. MULTZOA. Biodibertsitatea Lur planetan. Biodibertsitatea

- Biodibertsitatea: sarrera. Euskal Herriko espezie bereziak. Biodibertsitatearen galera. Euskal Herriko naturaguneen balioespena.

Euskal curriculumaren berriazko edukien zehaztapena*

4. MULTZOA. Biodibertsitatea. Ekologia eta ingurumena.

- Biodibertsitatea. Euskal Herriko espezie bereizgarriak.
- Euskal Herriko naturagune babestuak: Iratiko basoa, Txingudiko badia, Bertizko jaurerria, Bardeak, Izki, Gorbeia, Aia, Urkiola, ...
- Lurreko ekosistemak: basoak (pinudia, artadia, pagadia, ariztia, ...), larrak, mendialdea, basamortua (Bardeak), ...
- Itsasoko ur-ekosistemak: itsasadarrak, padurak. Euskal Herriko bereizgarrienak: Urdaibai, Txingudi, Ori, Plentzia, Bilbokoa, Barbadun, ...
- Ur gezako ekosistemak. Ur geza, baliabide mugatua: ur gezaren erreserbak Euskal Herrian: Ordunte, Ulibarri-Ganboa, Eugi, Senpere, Urkulu, Itoitz, ...

Euskara eta literatura

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea.

- Hainbat euskarritan idatzitako testuak sortzeko planifikatu, informazioa bilatu, egituratu, testu bihurtu eta berrikustea, lehenbizi komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatuta, autonomiarekin eta espiritu kritikoarekin.
- Teknika eta tresna digitalak modu autonomoan erabiltzea, idatzizko testuak ulertu, sortu, zuzendu eta zabaltzeko.
- Idatzizko testuak hobetze aldera, autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak erabiltzea, modu autonomo eta eraginkorrean.

Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

2. MULTZOA. Segurtasuna sarean jardutean.

- Etika eta legezotasuna sareko baliabideen erabileran.
- Netiketa: portaera-arau egokiak sarean.

5. MULTZOA. Edukiak argitaratu eta zabaltzea

- Eduki digitalak eta multimedia sortzea.
- Web inguruneak sortzea, eta haietan estekak, irudiak, grafikoak, soinua, bideoa eta abar txertatzea. Web 2.0 aplikazioak.
- Dagozkion lizentziak eta egile-eskubideak erabiltzea, edukiak berregiteko eta trukatzeko.
- Produktuak sortzeko formatu berriak ikertzeko jarrera irekia.

* Eduki horiek talde bakoitzak aukeratutako gaiaren arabera landuko dira.

OINARRIZKO KOMPETENTZIAK	Wikimedia	Gida											
Jarduera	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5 6											
Zehar-kompetentziak													
Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako kompetentzia	<table border="1"><tr><td style="background-color: #90ee90;">1</td><td>2</td><td>3</td><td style="background-color: #ffa500;">4</td><td>5</td></tr></table>	1	2	3	4	5	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td style="background-color: #ffa500;">4</td><td>5</td><td style="background-color: #ff6347;">6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5									
1	2	3	4	5	6								
Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia	<table border="1"><tr><td>1</td><td style="background-color: #ffff00;">2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td></tr></table>	1	2	3	4	5	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td style="background-color: #ffa500;">4</td><td>5</td><td>6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5									
1	2	3	4	5	6								
Elkarbizitzarako kompetentzia	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td style="background-color: #ffa500;">4</td><td>5</td></tr></table>	1	2	3	4	5	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td style="background-color: #ffff00;">3</td><td style="background-color: #ffa500;">4</td><td>5</td><td style="background-color: #ff6347;">6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5									
1	2	3	4	5	6								
Diziplina barneko kompetentziak													
Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia	<table border="1"><tr><td>1</td><td style="background-color: #ffff00;">2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td></tr></table>	1	2	3	4	5	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td style="background-color: #ffa500;">4</td><td style="background-color: #ffa500;">5</td><td style="background-color: #ff6347;">6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5									
1	2	3	4	5	6								
Zientziarako kompetentzia	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td></tr></table>	1	2	3	4	5	<table border="1"><tr><td style="background-color: #90ee90;">1</td><td style="background-color: #ffff00;">2</td><td style="background-color: #ffff00;">3</td><td style="background-color: #ffa500;">4</td><td>5</td><td style="background-color: #ff6347;">6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5									
1	2	3	4	5	6								
Teknologiarako kompetentzia	<table border="1"><tr><td style="background-color: #90ee90;">1</td><td>2</td><td style="background-color: #ffff00;">3</td><td style="background-color: #ffa500;">4</td><td style="background-color: #ff6347;">5</td></tr></table>	1	2	3	4	5	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td style="background-color: #ffa500;">4</td><td>5</td><td style="background-color: #ff6347;">6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5									
1	2	3	4	5	6								

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

(236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailetik)

Biologia eta Geologia

2. Hiztegi zientifikoa zuzen erabiltzea, bere mailarako egokia den testuinguru zehatz batean adierazpenak egitean.

- Badakizki hiztegi zientifikoko termino ohikoenak eta zuzen adierazteko gai da.
- Ikasitako gai ei buruzko deskribapen, azalpen eta argudiatzeak egiten ditu, hizkuntza zientifikoa zuzen erabiliz, eta adierazpenak zuzen eta txukun egiteko ahalegina egiten du.

3. Bere iritzia eratztea, adierazpenak zehaztasunez egitea, eta problema-egoerei buruzko argudioak ematea, informazio zientifikoa bilatuz, hautatuz eta interpretatuz.

- Ikasten ari denari buruzko informazioa bilatzen eta aurkitzen du eta ideiak topatzen ditu, zenbait formatu eta iturritan, izan idatzizkoak, ahozkoak zein digitalak.
- Informazioa irizpide kritikoz aukeratzen eta interpretatzen du.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

12. Izaki bizidunak sailkatzeko irizpideak aplikatzea, gako dikotomikoak edo beste bitarteko batzuk erabiliz, eta organismo ezagunenak dagokien talde taxonomikoarekin lotzea.

- Gako errazak erabiltzen ditu izaki bizidunak identifikatzeko.

- Organismo ohikoenen eredu taxonomiko nagusiak identifikatzen ditu, eta badaki zein diren talde taxonomikoen ezaugarri morfologiko nagusiak.

13. Biodibertsitatearen garrantziaz jabetzea, bere hurbileko ingurunean ikerketa soilak eginez, eta aintzat hartzea desagertzeko arriskuan dauden espezieak babesteko beharra.

- Euskal Herriko espezie berezi eta naturagune nagusiak zein diren badaki eta balioetsi egiten ditu.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

13. Ekosistema bateko osagaien eta ingurumen-faktoreen arteko erlazioak aztertzea, eta ingurumen-faktoreek ekosistemen orekari eta erregulazioari eusteko duten garrantzia balioestea.

- Biotopoa, populazioa, komunitatea, ekotonoa, kate eta sare trofikoak, habitat ekologikoa eta nitxo ekologikoa zer diren deskribatzen du.
- Badaki zein garrantzitsua den biodibertsitatea ekosistemak orekatuta egoteko eta badaki ekosisteman zer ondorio dituen hartako elementuak aldatzeak.

15. Gizakiaren jardueraren ondorioz sortutako ingurumen-arazo nagusiak deskribatzea, garapen iraunkorraren ikuspegitik aztertzea, eta banakako eta taldeko ekintza batzuen egokitasuna aintzat hartzea, ingurumen andeatzea eragozte aldera.

- Badaki zein garrantzitsuak diren Euskal Herriko espazio babestuak eta aintzat hartzen ditu.
- Euskal Herriko espazio natural eta espezie babestuak identifikatzen ditu.

Euskara eta Literatura

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

5. Planifikatu ondoren, idatzizko testu egokiak sortzea, batik bat azalpen- eta argudio-testuak, paperean nahiz digitalean, koherenteak, ongi kohesionatuak eta zuzenak, gai sozial, politiko edo kulturei buruzkoak, kontuan hartuz komunikazio-egoera. Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aztertu, eta haien araberako erabaki egokiak hartzen ditu.

- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aztertu, eta haien araberako erabaki egokiak hartzen ditu.
- Modu autonomoan bilatu eta hautatzen du informazio egokia eta hainbat ikuspuntutakoa, iturri analogikotan nahiz digitaletan.
- Esanahi-batasuna duten paragrafotan antolatzen du informazioa.
- Egoerarekin bat datorren erregistroa erabiltzen du.
- Arau gramatikalak eta tipografikoak errespetatzen ditu, bai eta arau ortografikoak ere.
- Modu autonomoan erabiltzen ditu autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak, idatzizko testuak berrikusteko nahiz hobetzeko.

Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

1. Segurtasunez, pribatutasunari eutsiz eta arduraz sartzea informazio digitala trukatzeko eta argitaratzeko den zerbitzuetan.

- Zenbait iturri kontsultatzen ditu eta badaki zein garrantzitsua den nortasun digitala eta nolako iruzurrak egiten diren webean.
 - Trukeak egiten ditu, erantzukizunez eta jabetza intelektuala errespetatuz
4. Edukiak sortu eta webean argitaratzea, testua, zenbakizko informazioa, soinua eta informazio grafikoa egoki txertatuta. (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailan ere ebaluatuko da)
- Edukiak argitaratzean estandar egokiak erabiltzen ditu eta jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzen ditu.

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK*

Orientagarria, ikasleekin adostu daiteke

Irizpidea	DBH1	DBH4	Kalifikatuko dena
Egunerokoa (Eztabaida orria)	-	% 10	8. jarduera
Autoebaluazioa	% 5	% 5	10. jarduera
Taldekieen koebaluazioa (guztien batezbestekoa)	% 10	% 10	10. jarduera
Azken produktua	% 75	% 60	Irakaslearen kalifikazioa % 40 Beste taldeen kalifikazioa % 20
Lana ezagutaraztea	-	% 5	11. jarduera
Jarrera	% 10	% 10	jarduerak egitea, taldean aritzea eta parte hartzea

* Irakasgai desberdinetako irakasleen lankidetzaz burutuz gero irakasle bakoitzak bere irakasgaiko irizpideak ezarri ditzake

LABURPEN-TAULAK

Wikimedia editatzen – Prestakuntza unitatea				
1. jarduera	1. saioa	IKT	25'	Galdetegia (2. eranskina, a. atala) Aurrezagutzak – Wikipediari buruzko galderak
2. jarduera			25'	Wikipediako akatsak identifikatu testuan Nola jakin webgune bat edo bertako informazioa fidagarria den edo ez (azalpena)
3. jarduera	2. saioa	IKT	25'	Eztabaidatu taldean egoerak – Copyrighta
4. jarduera			50'	Jarduera praktikoa Wikipedian – Nola editatu artikulua bat (DBH1 taldean)
5. jarduera	3. saioa	IKT	25'	Osatu taula lizentzia bakoitzaren ezaugarriekin Azalpena – Creative Commons lizentziak

GUZTIRA 2h 30'

Euskal Herriko ingurumen-gida					
1. jarduera	1. saioa	IKT	25'	Aurkezpena	
2. jarduera	2. saioa	BIO/GEO	50'	Euskal Herriko eremu babestuen taula Bilaketa Interneten – Naturaguneen babesak	
3. jarduera	3. saioa	BIO/GEO	50'	Gaia aukeratu – Taldeak antolatzea (taldean) Arduren kontratua (3. eranskina)	
4. jarduera	4. saioa	BIO/GEO EUS	1h 40'	DBH4. Bilaketa bibliografikoa eta artikulua idaztea Wikiliburuak liburutegian (taldean)	
	5. saioa			DBH1. Irteera, argazkiak atera eta Wikimedia Commonsera igotzea (taldean)	
5. jarduera	6. saioa	IKT	50'	DBH1/4. Autoebaluazioa (4. eranskina) DBH1/4. Taldekideen koebaluazioa (4. eranskina) DBH4. Eztabaida (taldean) eta beste talde baten koebaluazioa (5. eranskina)	
6. jarduera	7. saioa	IKT	50'	Lana hobetzea eta emaitzaren berri ematea - Eztabaida (ikasgela osoa)	
GUZTIRA			5h 25'		

1.2 Wikimedia editatzen – Prestakuntza unitatea

Hasiera fasea

1. jarduera. Wikipedia, entziklopedia askea?	DBH 1 eta 4	25'
<p>Wikipedia eduki askeko entziklopedia bat da, lankidetzaz editatua, eleanitza, Interneten argitaratua, Wikimedia Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakundeak sustengatua. Wikipedia mundu osoko boluntarioek idazten dute. Internetera konektatutako edonork parte har dezake Wikipediako artikuluetan. (Wikipedia, 2021-05-31)</p> <p>Zer da Wikipedia zuretzat? Sekula erabili al duzu? Zertarako? Bete ondorengo galdetegia eta hausnartu bere erabileraz.</p> <p>Irakaslearentzat oharrak:</p> <p>Galdetegi bat (2. eranskina, a) atala) pasako zaie ikasleei euren informazioaren kontsumo- eta ekoizpen-ohiturak ezagutzeko. Ikasleei autoebaluazioa egiteko balioko die aurrerago eta proiektuaren hasierako ebaluazioa egiteko balioko du, proiektuan parte hartu duten ikasleen inguruko informazioa eskainiko baitu.</p>		

Galdetegia ikasgelan bertan bete daiteke edo etxean betetzeko eska dakieke, taldearen ezaugarrien eta proposamena gauzatzeko dagoen denboraren arabera. Beste aukera bat, galdetegia etxean bete eta ikasgelan emaitzak eztabaidatzea izan liteke, honako galderak aztertuz:

- Zenbat ikaslek erabili dute noizbait Wikipedia? Eta zein maiztasunekin erabiltzen dute?
- Zertarako erabiltzen dute? Zein esparrutan?
- Zein iritzi dute Wikipediak? Eta hezkuntzan erabiltzeaz?
- Zer da entziklopedia “askea” izatea?
- Zer deritzozu edonork parte hartzeko eskaintzeari?

Garapen-fasea

2. jarduera. Interneteko informazioa, fidagarria ote?	DBH 4	25'
<p>Josu Albero wikilariari 2015ean Uztarrria aldizkarirako eginiko elkarrizketan honakoa aipatzen du Wikipediaren fidagarritasunaz galdetzean:</p> <p>Entziklopedia irekia izanik, akats asko dituela esan ohi da sarritan. Sakon eta zorrotz aztertuz gero, baina, ez dela horrela ikus daiteke [...]. Kontuan izan behar da entziklopedia irekia dela eta edonork aldatu ditzakeela gauzak. Horregatik, administratzaileak oso garrantzitsuak dira, kalitatea zaintzeaz arduratzen baitira. Euskarazkoan, hamaika administratzaile daude, eta artikuluak berrikusten eta zuzentzen dituzte. Lan hori, ordea, beste edonork ere egin dezake; okerrak ikusiz gero, aldatu.</p> <p>Aurkitu al duzu sekula Wikipedian akatsik? Nola jakin dezakezu aurkitutako informazioa zuzena eta fidagarria den?</p> <p>Eztabaidatu ondorengo testuan dagoen informazioa:</p> <p>Txakurra, zakurra edo ora (<i>Canis lupus familiaris</i> [...]) ugaztun haragijale bat da. Caninae klaseko kidea da eta lur-lehorreko haragijalerik ugariena da. Txakurrak eta otsoak (<i>Canis lupus</i>) taxoi-ahizpak dira; izan ere, txakurrak etxekotu zirenean existitzen ziren otsoak ez dira gaur egungo otsoak bezalakoak. Hertsiki, gaur egungo otso zein txakurren arbasoa desagertua dago. Txakurra izan zen etxekotutako lehen animalia eta milurtekoetan zehar hautespen natural bidez hainbat ezaugarri izateko aukeratu ditu gizakiak. Arraza guztien artean politena euskal artzain txakurra da. (Wikipediako Txakur artikulutik eratorria 2021eko ekainaren 1ean, aldatuta)</p>		

Irakaslearentzat oharrak:

Aurrena tarte bat utziko zaie ikasleei testua utzi eta proposatutako galderak erantzuteko. Galderei denen artean erantzun dakieke, ondoren banaka testuko akatsak bilatuz. Jarraian, jarduera eztabaidatu eta akatsak azalduko dira.

- “[...] *ugaztun haragijale bat da.*” (jatorrizko artikulutik). Gaztelerazko bertsiotik itzultzean egindako akatsa izan daiteke, izan ere, bertan karniboroa (*Carnivora* ordenekoa) dela aipatzen da, baina elikadurari dagokionez dieta omniboroa duela.
- “*Caninae klaseko kidea da [...]*” (jatorrizko artikulutik aldatuta). *Caninae* azpifamilia da.
- “[...] *taxoi-ahizpak dira [...]*,” (jatorrizko artikulutik). Euskaltzaindiak onartutako forma “taxon” da.
- “[...] *milurtekoetan zehar hautespen natural bidez hainbat ezaugarri izateko aukeratu ditu gizakiak.*” (jatorrizko artikulutik aldatuta). Hautespen artifiziala izan da.
- “*Arraza guztien artean politena euskal artzain txakurra da.*” (jatorrizko artikuluari gehituta). Wikipediara gehitutako informazioak neutrala eta objektiboa izan behar du, ezin da iritzirik gehitu. Ondorioz, baieztapen hori ezin da Wikipedian jarri, baldin eta modu objektiboan hori baieztatzen duen azterketa bat ez bada tarteko.
- Testuan erreferentziak falta dira (jatorrizko artikulutik aldatuta). Nondik atera da informazioa?

3. jarduera. Zer ote da “C” hori?

DBH 1 eta 4

25'



Egile-eskubideak edo copyright egileei lan bat egiteagatik, izan literarioa, artistikoa, edo zientifikoa, argitaraturik egon edo ez, legediak eskaintzen dien arau eta baldintza multzo bat da. ([Egile-eskubideak, 2021-05-31](#))

Osatu 4-5 laguneko taldeak eta eztabaidatu ondorengo egoerak:

- a) Ikaskide batek euskal musika talde baten disko berria erosi du, eta asko gustatu zaionez disko horren kopiak egin ditu gainontzeko ikaskideentzat.
- b) Miren idazlea da eta liburu berri bat idatzi berri du. Lagun bati eskatu dio liburua irakurri eta bere iritzia emateko. Lagunari liburua asko gustatu zaio, eta Mirenen lana ezagutarazteko bere blogean jarri du edonork irakurri ahal izateko.
- c) Biharko lan idatzi bat egin behar dut irakasleak hala eskatuta. Lana eginda dut, baina txukuna eta polita izan dadin, Interneten aurkitutako zenbait irudirekin apaintzea erabaki dut.

- d) Atzo irteera egin genuen museo batera eta bertan nire lagun Aitorrek hainbat argazki atera zituen. Ikastetxeko webgunean argitaratzeko artikulua bat idazteko eskatu dizu irakasleak eta Aitorri ikasgela osoa ageri den argazki bat webgunera igotzeko baimena eskatu diozu.

Irakaslearentzat oharrak:

Eztabaidarako proposatutako egoerak nahiko irekiak dira eta behin taldean eztabaidatu ostean ondorioak ikasgela osoaren artean eztabaidatzea da jardueraren gakoa. Ikasleei egunerokoan egile-eskubideek duten presentziaz ohartzeko eta horien urraketaz jabetzeko balioko die. Proposatutako egoerak zenbait adibide baino ez dira, ikasleen mailaren eta interesaren arabera, egoera gehiago eta gatazkatsuago proposa daitezke.

- a) Pirateria kasua da, egilearen baimenik gabe materiala bikoiztu eta zabaldu baita.
- b) Aurrekoaren antzeko egoera da, liburua argitaratu gabe dagoen arren, egile-eskubideek babesten baitute. Hala ere, adibide gisa, agian Mireni interesgarria iruditu dakioke liburua lagunaren blogean argitaratzea bere aurreneko lana delako eta berau ezagutzera emateko. Edozein kasutan, lagunak Mirenen baimena beharko luke lana blogean argitaratzeko.
- c) Plagioa da baldin eta horiek erabiltzeko baimenik ez badut eta neure irudi gisa aurkezten baditut. Irudiek haien erabilera baimentzen dutela ziurtatu beharko litzateke, eta beharrezkoa den kasuan iturria aipatu beharko litzateke.
- d) Egilearen baimena duzunez argazkia webgunera igo daitekeela pentsa zenezake, baina, kontuan izan behar da, argazkian ikasgela guztia agertzen denez gero, ikaskide guztien baimena beharrezkoa dela argazkia publiko egiteko. Horregatik, ikasturte hasieran baimena eskatzen zaie gurasoei ikasleen irudiak argitaratzeko eta hori ere kontuan izan behar da.

Aplikazio- eta komunikazio-fasea

4. jarduera. Azkar eta ondo...	DBH1 eta 4	25-50'
<p>Wikia web aplikazio mota bat da, erabiltzaileei lankidetzan, elkarlanean, edukiak gehitzeko, aldatzeko edo ezabatzeko aukera ematen diena [...]. Izena hawaiierazko wikiwiki adberbiotik dator («laster», «bizkor» esan nahi du). (Wiki, 2021-06-01)</p> <p>4 edo 5 laguneko taldeak osatu eta Wikipedian kontu bana sortuko duzue taldeko (DBH1en) edo ikasleko (DBH4an).</p> <p>DBH4. Wikipedian zeure kontuarekin sartu ondoren Proba orrira joango zara eta bertan proposatutako ariketak egingo dituzu edizioan trebatzeko. Gogoratu proba orrian idatzitakoa publikoa dela eta edonork ikusi dezakeela.</p>		

- a) Aukeratu gai bat eta idatzi sarrera bat proba orrian aukeratutako gaiaz.
- b) Erabaki aukeratutako gaiaren atal nagusiak eta idatzi zerrenda sarreraren azpian, dagokion izenburu-formatua emanaz.
- c) Gehitu atal-zerrendaren amaieran Erreferentziak izeneko azken atal bat eta txertatu bertan Erreferentzia zerrenda.
- d) Sarreran idatzitako testuan, aldatu zenbait hitzen formatua letra lodiz edo etzanez idatziz, adibidez.
- e) Aukeratu sarrerako testuan Wikipediako artikulua propioa duen hitz bat eta sortu lotura dagokion artikulura.
- f) Gehitu erreferentzia bat sarrerako testuan.
- g) Gehitu irudi bat testuan.
- h) Jarraitu probak egiten.

DBH1. Jarduera honetan argazki bat Wikimedia Commonsera nola igo ikasiko duzu. Horretarako, hasi saioa Wikimedia Commons taldeko kontuarekin eta klikatu «Fitxategia igo». Irakurri argibideak eta jarraitu bertan adierazitako pausoak.

- a) Hautatu zure ordenagailuan gordeta duzun irudia eta idatzi irudiaren informazioa dagokion eremuan (izenburua, deskribapena).
- b) Gehitu irudia sailkatzeko eta biltzeko balioko duen kategoriaren bat. Eraikin baten irudia bada, herriaren izena, eraikinaren izena edota arkitektura estiloa izan daitezke kategoria egoki batzuk.
- c) Kategorietan gehitu zuen ikastetxea edo proiektua identifikatzen duen bat ere, DBH4ko ikasleek artikuluetan txertatzeko irudiak erraz aurkitu ditzaten.

Irakaslearentzat oharrak:










Wikipediako kontua sortzeko erabiltzaile izena eta pasahitzaz gain, helbide elektronikoa bat eskatuko digu. Beharrezkoa izango da, beraz, talde edo ikasle bakoitzak helbide elektronikoa bat izatea.

Jarduera burutzeko orduan garrantzitsua izan daiteke ikasgela osoak aldi berean egitea, irakaslearekin batera. Ondoren eskainiko da tarte ikasleek euren kasa probak egiteko. Irakasleak ondo ezagutu beharko du tresna bidea sor daitezkeen arazoak konpondu ahal izateko. Horretarako, oso gomendagarria da jarduerari egiterako Wikipediako [Hezkuntza Atarian](#) dauden baliabideak begiratzea, hala nola, bideo tutorialak edota liburuxkak. DBH4rako proposatutako jarduerak bideo-tutorialen [4. atala](#) du oinarri. DBH1erako proposatutako jarduerak, aldiz, [Wikipedia irudiztatzen](#) liburuxka du oinarri.








DBH4koen kasuan, gomendagarria litzateke aldi bereko edizioek sor ditzaketan arazoez ohartaraztea. Hau da, bi erabiltzailek ezin dute artikulu bera editatu aldi berean. Hori kontuan izatea oso garrantzitsua izango da aurrerago taldearen lana behar bezala antolatzeko eta arazoak ekiditeko.

DBH1eko kasuan, jarduerari ekiterako zenbait irudi eskura izatea gomendagarria litzateke, taldeko bat gutxienez. Gogoratu Wikimedia Commonsera igo ahal izateko argazkiek libreak izan behar dutela, eta hori ziurtatzeko modurik errazena norberak egindako argazkiak izatea da. Ikasleek beraiek egindako argazkiak edo aurrez irakasleak egindakoak izan daitezke, adibidez ikastetxearenak edota inguruko eraikin esanguratsuenak.

Orokortze- eta transferentzia-fasea







5. jarduera. Zer egin dezaket?	DBH 1 eta 4	25'
<p>Aurrerago landu genuen zer den copyrighta eta nola erabili. Oraingo honetan Wikipediaren proiektuak ezagutuko ditugu:</p> <p>Wikipedia: aurrerago ere aritu gara honetaz. Entziklopedia askea edo librea da, hau da, bertako edukiek ez dute copyrightik eta horien banaketa eta aldaketa baimentzen da. Wikipediak CC BY-SA (v. 3.0) eta GFDL lizentzia libreak darabiltza, batez ere. Baina bada Wikipedian erabilera librekoa ez den edukirik ere.</p> <p>Wikimedia Commons: irudi, soinu eta multimedia fitxategi askeen biltegia da, eta bertako edukiek CC BY-SA, CC BY edo jabari publikokoak behar dute izan.</p> <p>Wikiliburuak: liburu eta eskuliburu askeen liburutegia da.</p> <p>Baina zer dira lizentziak? Eta zer adierazten dute aipatutako siglek?</p>	       	


Begiratu lizentzien semaforoa eta osatu taula dagokion lekuan BAI edo EZ idatziz:

Erabili daiteke lizentzia hori duen eduki bat...					Eduki askea da?
Lizentzia	...egilea aipatu gabe?	...irabazi ekonomikoak izateko?	...aldatuta?	...lizentzia desberdinarekin?	
					
					
					
					
					
					
					

Irakaslearentzat oharrak:

Jarduera honetan irakaslearen azalpena ezinbestekoa izango da ikasleek Creative Commons lizentziak ezagutu eta siglen esanahia barneratu dezaten. Irakasleak azalpena guztiek ulertu dutela ziurtatu beharko du. Taula osatzean koloreak erabili daitezke nahi izanez gero.

Erabili daiteke lizentzia hori duen eduki bat...					Eduki askea da?
Lizentzia	...egilea aipatu gabe?	...irabazi ekonomikoak izateko?	...aldatuta?	...lizentzia desberdinarekin?	
	EZ	EZ	EZ	BAI	EZ
	EZ	EZ	BAI	EZ	EZ
	EZ	EZ	BAI	BAI	EZ
	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
	EZ	BAI	BAI	EZ	BAI
	EZ	BAI	BAI	BAI	BAI

	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
---	-----	-----	-----	-----	-----

1.3 Euskal Herriko ingurumen-gida

Hasierako fasea

1. jarduera. Ingurumen-gida Wikipedian. Parte hartu nahi?	DBH 1 eta 4	25'
<p>Leku berriren bat bisitatu nahi dugunean ohikoa da leku horren inguruko bilaketa egitea bisita planifikatzeko, eta bilaketan, maiz, Wikipediako orria izan ohi da aurreneko emaitza. Wikipediak Euskal Herrira txokoak ezagutu nahi dituzten bisitariengan izan dezakeen eraginaz jabeturik, Eusko Jaurlaritzak, Wikipedian, Euskal Herriko naturagune babestuen eta biodibertsitatearen gida bat sortzea proposatu dio Euskal Wikilarien Kultura Elkarteari. Haiek Euskal Herriko ikastetxeekin jarri dira harremanetan proiektua burutzeko laguntza eske, besteak beste, zure ikastetxearekin:</p> <p><i>“Kaixo lagun, Euskal Wikilarien Kultura Elkartearen izenean idazten dizut Eusko Jaurlaritzak proposatutako proiektu baten berri emateko. Wikiliburuak liburutegian argitaratzeko gida bat sortu nahi dugu Euskal Herriko naturagune babestuen eta biodibertsitatearen inguruan, eta gidarako testuak edo irudiak sortzeko interesa duen jendearen bila gabiltza. Askok eskertuko genuke zure laguntza proiektua gauzatu ahal izateko, eta gustatuko al litzaizuke proiektuan parte hartzea? Zure erantzunaren zain, Wiki”</i></p> <p>Proiektu interesgarria iruditu zaizu eta, ikaskideekin batera, parte hartzea erabaki duzu. Zer aurki daiteke halako gida batean?</p> <p>Irakaslearentzat oharrak:</p> <p>Jarduera honen helburuak izango dira ikasleei arazo-egoera eta zeregina aurkeztea eta haiei ebaluazio-irizpideak eskaintzea, sekuentzia honetan zer eta nola landuko duten jakin dezaten.</p> <p>Zeregina, Wikipediak eskaintzen dituen baliabideak erabiliz eta modu kolaboratiboan, Euskal Herriko naturagune babestuen eta biodibertsitatearen gida bat sortzea da. Gida horri laguntzeko irudiak ere bilduko dira Wikimedia Commons biltegian. Emaitza Wikiliburuak liburutegian argitaratuko da.</p> <p>Landuko den gaia aurrerago zehaztuko den arren, ikasleei galdegin dakieke zer informazio sartuko luketen halako gida batean, proiektuan barneratzen joan daitezen.</p>		

Garapen-fasea

2. jarduera. Euskal Herriko eremu babestuak		DBH 1 eta 4	25-50'
<p>Zein dira Euskal Herriko eremu babestuak? Nork babestu ditu? Zergatik babestu dira? Bila itzazu sarean honako kontserbazio- edo babes-figurak eta saiatu galdera horiek erantzuten. Eman bakoitzaren Euskal Herriko adibide bana. <i>Biosferaren Erreserba, Ramsarko hitzarmena, Natura 2000 Sarea, Natura-parke, Biotopo babestu, Zuhaitz aparteko</i></p> <p>Irakaslearentzat oharrak: Jarduerari ekiteko ikasleei gaiaz zer dakiten galdetu dakieke, batez ere azken galderan oinarrituta: Zein izan daitezke eremu bat babesteko arrazoiak? Jarraian, honelako taula batean jaso daitezke bilaketaren emaitzak. Ikasleen mailaren arabera, gehiago edo gutxiago sakontzeko eska dakieke.</p>			
Kontserbazio-figura	Nork izendatua	Arrazoaia	Adibidea
Biosferaren Erreserba	UNESCO	Habitat moten adierazgarri den gunea	Urdaibaikoa
Ramsarko hitzarmena	Nazioarteko hitzarmena	Hezeguneen kontserbazioa eta erabilera arrazionala sustatzeko	Urdaibai, Guardiako zingirak, Txingudiko badia,...
Natura 2000 Sarea	Europar Batasuna	Interes handiko habitatak eta espezieak babesteko	Izarraitz, Izki, Gorobel,...
Natura-parkea	Eusko Jauriaritza	Ezaugarri bereziak dituen (paisaia, ekosistema, formazio geomorfologikoak...) eta giza jarduerak nabarmenki eraldatu ez duen gunea	Izkikoa, Gorbeiakoa, Pagoetakoa, Aizkorrikoa,...
Biotopo babestua	Eusko Jauriaritza	Natura-balio garrantzitsuak dituen eremua, natura-parkeak baino txikiagoa	Leitzarar ibaia, Gaztelugatxeko Doniane,...
Zuhaitz apartekoa	Eusko Jauriaritza	Ezaugarri bereziren bat dela eta babes berezia merezi dutenak	Gasteizko sekuoia erraldoia,...

3. jarduera. Proiektua diseinatzen		DBH 1 eta 4	50'
<p>Jarduera honetan proiektua antolatzea dagokizue. Aurrena ikasgela osoaren artean landu nahi duzuen gaia erabaki beharko duzue, eta ondoren talde bakoitzari atal bat esleituko diozue.</p> <p>Taldean egoki lan egiteko, ezinbestekoa da taldekide guztiek argi izatea lanaren nondik norakoak eta, batez ere, norberari dagozkion zereginak. Horrenbestez, idazkari bat izendatuko duzue taldean, eta lana antolatzeko elkartzen zaretenean eztabaidatutako gaiak eta hartutako</p>			

erabakiak eguneroko batean idatziz jasotzeaz arduratuko da. Lan prozesuan zehar bi idatzi jaso beharko dira gutxienez ebaluazioan dagokion puntuazio maximoa lortzeko.

Bestalde, kontratu bana (3. eranskina) sinatuko duzue zuen ardurak onartzen dituzuela eta beteko dituzuela, eta egile-eskubideak eta lizentziak ezagutzen dituzuela eta errespetatuko dituzuela adieraziz. Kontratuan jaso beharko dira, bestalde, baldintza horien urraketak izango dituen ondorioak.

Irakaslearentzat oharrak:

Taldeak egiterako orduan, gerta daiteke zenbait taldetan ikasleren batek lana bere gain hartzea eta beste zenbait ikaslek lanik ez egiteko aprobetxatzea. Halako kasuak eragozteko bi proposamen egingo dira:

- Taldeak irakasleak egin ditzake, ikasleak eta bakoitzaren gaitasunak eta izaera ezagutuz gero, antzeko gaitasunak dituzten ikasleak elkarrekin taldekatuz edota taldean lan gutxiago egiteko joera duten ikasle horiek elkartuz. Edozein kasutan, talde bakoitzari esleitutako zereginak eta lan-kargak ere bat etorri beharko dute talde horren gaitasunekin.
- Taldeak zoriz egiten badira, irakasleak ikasle bakoitzari taldearen barnean zeregin edo rol bat esleitu dakioke, ikasle bakoitzak izan dezan bere erantzukizuna eta berari dagokion lana taldekideen eskuetan utz ez dezan. Kasu honetan ere, garrantzitsua izango da ikasle bakoitzaren zeregina bat etortzea ikasle horren gaitasunekin.

Gaia aukeratzeko orduan DBH4ko eta DBH1eko taldeak koordinatzea garrantzitsua izan daiteke, bi taldeek gai bera landu dezaten, batak bestearena osatuz. Proposatutako gaia oso zabala denez hainbat modutara landu daiteke. Aurreneko jarduera hartu daiteke abiapuntutzat, bertan hitz egin baita ingurumen-gida batean aurki daitezkeen artikuluez. Proposamen gisa, hona aukera batzuk:

- Euskal Herriko naturagune bat aukeratu daiteke eta atal desberdinak landu: bertako ekosistemak karakterizatu (klima, geologia, gizakiaren eragina...), fauna eta florako espezie esanguratsuak (arriskuan dauden espezieak, berezitasunen bat dutenak...), naturaguneko bisitariarentzat ibilbideen gida (leku aipagarriak, interpretazio zentroak, inguruko herrietako leku aipagarriak...).
- Espezieen identifikaziorako fitzak sortzea: zuhaitzen hostoen bitartez genero edo espezieak identifikatzeko gako dikotomikoak, antzekotasun morfologikoak dituzten animalia espezieak identifikatzeko gakoak, animalien arrastoak identifikatzeko gida...
- Naturagunearen eta gizakiaren arteko harremana historian zehar nola aldatu den aztertzea: gizakiaren esku-hartzea historian zehar, naturagunearen babesa eta kontserbazioa...

Aukera asko eskaintzen ditu eta talde bakoitzak dagokion gaia ahal bezainbeste zehaztea gomendatzen da. Adibide gisa, zuhaitz espezieen identifikazioa aukeratzen bada ikasgelan lantzeko, talde bakoitzak bi edo hiru espezie azter ditzake. DBH4ko ikasgelan talde bakoitza bi edo hiru zuhaitz espezie identifikatzeko balio duten ezaugarriak deskribatzeaz arduratu daitezke, eta DBH1eko ikasgelako taldeak bi edo hiru zuhaitzen argazkiak egitez.

Ikasleei taldean elkartzen direnean akta edo eguneroko bat idazteko eskatuko zaie. Talde bakoitzari dagokion eztabaida orriak balio dezake horretarako, hala irakasleak leku bakarrean izango ditu taldearen lana eta taldearen lan-prozesua.

Proiektuan zehar landuko diren artikuluek Wikipediako antzeko egitura jarraitzea izan daiteke gomendagarriena, diseinuari dagokionez uniformetasuna mantentzen dezaten. Hala ez balitz, egoera edo gai desberdinak lantzeko baliagarria izan daitekeen diseinu bat hautatzea litzateke egokiena.

Aplikazio- eta komunikazio-fasea

4. jarduera. Proiektua gauzatzen	DBH 1 eta 4	1h 40'
<p>Behin taldea antolatuta lanari ekitea dagokizue. Gogoan izan orain arte landutakoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Errespetatu egileen lana. Informazio-bilaketa egitean jaso informazioa nondik atera duzun, zure lanean aipatu ahal izateko. • Errespetatu ikaskideen lana eta, arazo edo zalantzaren bat izanez gero, jo taldekideengana edo irakaslearengana laguntza eske. • Gogoratu bi lagunek ezin dutela aldi berean artikulua bera editatu. Zeuen proba orria erabil dezakezue dagokizuen testua lantzeko eta, behin osatuta duzuenean, egindako testua artikulura pasa. <p>Irakaslearentzat oharrak:</p> <p>DBH1eko ikasleekin irteera egingo da argazkiak ateratzeko. Horrenbestez, gaia aukeratzeko garrantzitsua izan daiteke horretan pentsatzea, hurbileko gai bat aukeratzuz, adibidez. Beste aukera bat, argazkiak beharrean ikasleek egindako marrazkiak erabiltzea izan daiteke. Kasu honetan, materialaren kalitatea zaintzea komenigarria izan daiteke, produktua publikoa izango denez gero, eta agian DBH1eko ikasleak baino egokiago izan daitezke ikasle helduagoak. Irteera eginez gero, DBH4ko ikasleentzat ere interesgarria izan daiteke gaia bertatik bertara lantzeko eta ikasitakoa praktikan jartzeko, adibidez.</p>		

5. jarduera. Proiektua ebaluatzen	DBH 1 eta 4	50'
<p>DBH1. Lanak amaitu ostean, horiek ebaluatzea dagokizue.</p> <p>Autoebaluazioa: galdetegi bat (2. eranskina, b) atala) beteko duzue, eta lehen jarduerako galdetegia eta taldekideen lana ebaluatzeko errubrika (4. eranskina) erabiliz zeuen burua kalifikatuko duzue.</p> <p>Taldekideen koebaluazioa: taldekideen lana ebaluatzeko errubrika (4. eranskina) erabiliz, taldekideen lana ebaluatu eta kalifikatuko duzu.</p> <p>DBH4. Lanak amaitu ostean, horiek ebaluatzea dagokizue.</p> <p>Autoebaluazioa: galdetegi bat beteko duzue, eta lehen jarduerako galdetegia eta taldekideen lana ebaluatzeko errubrika (4. eranskina) erabiliz zeuen burua kalifikatuko duzue.</p> <p>Taldekideen koebaluazioa: taldekideen lana ebaluatzeko errubrika (4. eranskina) erabiliz, taldekideen lana ebaluatu eta kalifikatuko duzu.</p> <p>Taldeko koebaluazioa: zure taldeak beste baten lana ebaluatuko du. Horretarako, taldeen lana ebaluatzeko errubrika (5. eranskina) erabiliz, eztabaidatu taldean beste taldearen lanaren indargune eta ahulguneak. Idatzi oharrak eta hobekuntza proposamenak beste taldearen lanaren eztabaida orrian eta kalifikatu lana.</p> <p>Irakaslearentzat oharrak:</p> <p>Irakasleak lan guztiak gainbegiratu dituzte, feedbacka eskainiko du eztabaida orrian, eta talde bakoitzaren lanari kalifikazio bana jarriko dio. Ondoren, autoebaluazio eta koebaluazioak kontuan izanik, taldekide bakoitza kalifikatuko du bakarka.</p> <p>DBH1ean amaierako produktua irakasleak baino ez du ebaluatuko. Ezarritako irizpideak betetzen dituen taldeak puntuazio maximoa lortuko du, eta autoebaluazioa, koebaluazioa eta jarrera hartuko da kontuan ikasle bakoitzaren kalifikazioa kalkulatzeko.</p>		

Orokortze- eta transferentzia-fasea

6. jarduera. Zabal dezagun egindakoa!	DBH 1 eta 4	50'
<p>Irakaslearen eta beste taldeen ebaluazioa kontuan izanik, lana hobetzeko aukera izango duzue. Ondoren, ikasgela osoaren artean bitarteko digital bat aukeratu duzue (ikastetxearen webgunea, bloga, sare sozialak...) zuen lanaren berri emateko. Zer kontatu nahi duzue? Eta nola kontatuko duzue, testu bidez, irudi bidez...? Zein lizentziapean argitaratuko duzue?</p>		

Irakaslearentzat oharrak:

Idea-jasa egin daiteke ikasgela osoaren artean albistean zein informazio adierazi nahi den erabakitzeko, eta non eta nola argitaratu nahi duten erabakitzeko. Talde bakoitzak bere albistea argitaratzea da beste aukera bat, edo talde bakoitzak bitarteko desberdin baterako albistea prestatzea.